


Ordizian, 2023ko ekainak 17an
ORDIZIAKO UDALEKO ERAKETA SAIOA egin da udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

En Ordizia siendo el día 17 de junio de 2023 se celebra la SESIÓN CONSTITUTIVA DEL AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA con la asistencia de las siguientes personas:

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Adur Ezenarro Agirre	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Maitane Alvarez Garciandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Ainhoa Jimenez Goñi	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Itsaso Muñoz Rodriguez	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Manex Berzosa Irastorza	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Marta Ortega Echeverria	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Gregorio Iruretagoyena Echaniz	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi	EAJ-PNV
Leire Bidaguren Pujana	EAJ-PNV
Carlos Castaño Arias	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Viviana Angélica Murillo Cazar	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Ana M. Sanchez Herraez	PSE-EE (PSOE)



Ordiziako Udala

2023IOSB0009

IDAZKARIA:

Ainhoa Esnaola Zubeldia

AZTERTUTAKO GAIAK:

GAI-ZERRENDA

Lehenengoa.- Adinagatiko Mahaiaren eraketa.

Bigarrengoa.- Zinegotzi hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea

Hirugarrena.- Udalbatzaren eraketaren eta zinegotzien kargu-hartzearen adierazpena.

Laugarrena.- Alkatearen hautaketa.

Bosgarrena.- Alkatearen kargu-hartza.

ORDEN DEL DÍA

Primerº.- Formación de la Mesa de Edad.

Segundo.- Comprobación de credenciales y personalidad de los/las concejales electos/as.

Tercero.- Declaración de constitución de la corporación y toma de posesión de los/las concejales.

Cuarto.- Elección de Alcalde/sa.


Quinto.- Toma de posesión del/de la Alcalde/sa.

GORABEHERAK:

ORDUTEGIA:

HASIERA: 12:00etan.

AMAIERA: 12:45etan.



Idazkariak jakinarazi du bilkura honen helburua Udala osatzea dela, Hauteskunde Orokoren 5/85 Lege Organikoaren 195.1 artikuluak ezarritakoari jarraiki. Era berean, adierazi du, aurretiaz, zinegotzi hautetsi guztiekin euren egiaztagiriak eta identitatea egiaztatu dituztela eta hautetsietako bakar bat ere ez dagoela bateraezintasun-arrazoiren batek eraginda.

Jarraian, hautetsien aldarrikapen akta irakurri du.

Ondoren, adierazi du ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluari jarraiki, **Adineko Mahaia eratu dela**. Hartara, hauexek dira Adineko Mahaiko kideak: Gregorio Iruretagoyena Echaniz jauna, adinez nagusiena den kidea eta bertako lehendakaria dena, Marta Ortega Echeverria, kide gazteena dena eta Ainhoa Esnaola Zubeldia andrea, Udal Idazkaria dena.

Bilkurara Zinegotzi hautetsi guztiak bertaratu direnez, eta, beraz, legezko gehiengo absolutua betetzen denez, **Udalbatza eratutzzat jo da**.

Idazkariak zinegotzien kargu hartzea perfektionatzeko azalpenei ekin die. Horretarako, lehenik eta behin, Adineko Mahaiko Lehendakariak apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak ezartzen duen manua irakurri du eta jarraian, aldarrikapen aktako hurrenkeran, zinegotzi hautetsi guztiei dei egin zaie **karguaren zin egitea onartzeko**.


La Secretaría da cuenta de que el objeto de esta sesión es la constitución del Ayuntamiento en cumplimiento de lo ordenado en el art. 195.1. de la Ley Orgánica 5/85 de Elecciones Generales. Del mismo modo, ha señalado que previamente todos los concejales electos han presentado sus credenciales y acreditado su identidad, y que ningún concejal está afectado por alguna causa de incompatibilidad sobrevenida.

A continuación, ha leído el acta de proclamación de electos.

Posteriormente, se procede a formar la **Mesa de Edad** prevista en el art. 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio de Régimen Electoral General, que queda integrada por el concejal electo Gregorio Iruretagoyena Echaniz, por ser el mayor de edad, que la preside y por la concejala electa Marta Ortega Echeverria, por ser el de menor edad. Actúa como secretaria Dña. Ainhoa Esnaola Zubeldia que lo es también del propio Ayuntamiento.

Realizada la operación anterior y habida cuenta de que concurren a esta sesión la totalidad de los Concejales electos y por consiguiente la mayoría absoluta legal, se entiende constituido el Ayuntamiento.

La secretaría ha expuesto los pasos a seguir para el perfeccionamiento del cargo de concejal. Para ello, en primer lugar, el presidente de la Mesa de Edad ha leído la fórmula establecida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, y acto seguido, por orden del acta de proclamación, cada concejal ha realizado el juramento del cargo.



Lehendakariak hurrengo galdera egin die zinegotzi hautetsi guztiei: “**Zin egiten duzu edo hitz ematen duzu zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguari dagozkion obligazioak, Erregeari leial, eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula Estatuaren arau nagusi gisa?**”.


El presidente ha formulado la siguiente pregunta a los concejales electos: “¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?”.

▪ **EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)**

- | | |
|------------------------------|---|
| Adur Ezenarro Agirre: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Maitane Alvarez Garciandia: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Jon Ander Caballero Zubelzu: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Ainhoa Jimenez Goñi: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Itsaso Muñoz Rodriguez: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Manex Berzosa Irastorza: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Marta Ortega Echeverria: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |

▪ **EAJ-PNV**

- | | |
|---------------------------------|---|
| Joseba Aranburu Ganzarain: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Gregorio Iruretagoyena Echaniz: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Arantxa Arocena Gomez: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Xabier Crespo Ibarrolaburu: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Agurtzane Antoñana Arizmendi: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Leire Bidaguren Pujana: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |
| Carlos Castaño Arias: | - Legeak hala aginduta, zin egiten dut. |



▪ **ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)**


Miren Alazne Sukia Galparsoro: - Legeak hala aginduta, zin egiten dut.
Viviana Angélica Murillo Cazar: - Si prometo.

▪ **PSE-EE (PSOE)**

Ana M. Sanchez Herraez: - Si prometo.

Beraz, hurrengo hautetsiek zinegotzi kargua hartu dute:

Adur Ezenarro Agirre.	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Maitane Alvarez Garciandia.	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu.	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Ainhoa Jimenez Goñi.	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Itsaso Muñoz Rodriguez.	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Manex Berzosa Irastorza .	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Marta Ortega Echeverria .	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Joseba Aranburu Ganzarain.	EAJ-PNV
Gregorio Iruretagoyena Echaniz.	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez.	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu.	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi.	EAJ-PNV
Leire Bidaguren Pujana.	EAJ-PNV
Carlos Castaño Arias.	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro.	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Viviana Angélica Murillo Cazar.	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)



Ondoren, Hauteskundeen Lege Orokorreko 196. artikuluko prozedurari jarraiki, **ALKATEAREN HAUTAKETARI** ekin zaio. Lehenik eta behin, Idazkariak galdu die zerrendaburu guztiei ea euren eskubidea egikaritu nahi duten ala uko egiten dioten. Behin galdera egin eta gero, hurrengo hautetsiak aitortu dira Alkate izateko hautagai:

*Seguidamente, de conformidad con el procedimiento del artículo 196 de la Ley General Electoral, se procede a la **ELECCIÓN DEL ALCALDE**. En primer lugar, la secretaría pregunta a todos los cabezas de lista si quieren ejercer su derecho o renuncian. Una vez realizada la pregunta, se declara candidatos a Alcalde a los siguientes cargos electos:*

.- ADUR EZENARRO AGIRRE.

.- JOSEBA ARAMBURU GANZARAIN.

Ondoren bozketari ekin zaio AJAren 102.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, HAOLoren 5. artikuluarekin lotuta, bozketa sekretuaren sistema bidez. Nolanahi ere, aurretiaz Idazkariak prozedura zein den azaldu du:


A continuación se ha procedido a la votación, en base a lo establecido en el artículo 102.3 del ROF, en relación con el artículo 5 de la LOREG, mediante el sistema de votación secreta. No obstante, previamente la secretaría ha explicado el procedimiento:

a) Zinegotziren batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, hautetsitzat joko da. Alegia, kasu honetan, 9 boto beharko lirateke.

a) Si alguno de ellos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los concejales es proclamado electo. Es decir, en este caso, se necesitarían 9 votos.

b) Horietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, dagokion udalerrian herri-boto gehien lortu dituen zerrendako buru den zinegotzia izendatuko da alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

b) Si ninguno de ellos obtiene dicha mayoría es proclamado alcalde el concejal que encabeza la lista que haya obtenido mayor número de votos populares en el correspondiente municipio. En caso de empate se resolverá por sorteo.



Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Adur Ezenarro Agirre: 7

Joseba Aranburu Ganzarain: 8

Zuriak: 2

Baliogabeak: 0

Bozketaren emaitzak ikusita, Idazkariak adierazi du inork ez duela gehiengo absolutua lortu eta ondorioz, herritarren boto gehien jaso dituen alderdia Euskal Herria Bildu izan denez, ADUR EZENARRO AGIRRE suertatu dela Alkate.

Jarraian, Adur Ezenarro Agirrek Alkatearen kargu hartze formalari ekin dio. Horretarako, Adineko Mahaiko Lehendakariak apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak ezartzen duen manua irakurri dio: “**Zin egiten duzu edo hitz ematen duzu zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula Alkatetza karguari dagozkion obligazioak, Erregeari leial, eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula Estatuaren arau nagusi gisa?**”.

Adur Ezenarro Agirre: - Legeak hala aginduta, zin egiten dut.


Jarraian, Adur Ezenarro Agirrek Alkate kargua hartu du eta hurrengo adierazpenak egin ditu:

Eskerrik asko lehenik zuoi, Ordiziako zinegotzi zareten hautetsioi, emandako babes eta konfidantzagatik, eskerrik asko EH Bilduko hautagaitza babestu duzuen herritar guztioi, eta baita beste aukera baten aldeko hautua egin duzuenoi ere.

Tras los resultados de la votación, la secretaría ha expuesto que ningún candidato ha logrado la mayoría absoluta, por lo que, al ser Euskal Herria Bildu el partido más votado en las elecciones municipales, se proclama alcalde a ADUR EZENARRO AGIRRE.

*A continuación, Adur Ezenarro Agirre ha procedido a la toma de posesión del cargo de alcalde. Para ello, el presidente le ha formulado la siguiente pregunta: «**¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcaldía con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?**»*

Gracias primero a vosotras y vosotros, cargos electos que sois concejales de Ordizia, por vuestro apoyo y confianza, gracias a todas las personas que habéis apoyado la candidatura de EH Bildu y también a los que habéis optado por otra opción.



Udala ordiziari guztiona da, eta alkatea ere ordiziari guztien delako ateak zabalik izango dituzue guztiak behar duzuenerako.

Utzidazue legegintzaldi berri honetan zinegotzi bezala estreinatuko zaretenoi ongi etorria ematen, eta badoaztenak gogoratzen. Gaur, eta areto honetan bereziki Bittor Bolinaga gogoratzen, eta baita ere alde batetik, edo bestetik, beti Ordiziaren alde lanean aritu den Jesus Mari Larizi eskerrak ematen, benetako erretiroa hartzera doan honetan. Erretiroaz ari garela ere, urte luzeetako jardunaren ostean, Iñaki Dubreuilere ere atsedena disfruta dezala opa diot.

Zorionez atseden egun batzuk hartu nituen duela gutxi, eta irakurtzeko erabili nituen. Seinale bat izango balitz bezala, bukatzean nuen liburuan eta hasi berri nuenean zita bera agertu zitzaidan. Margaret Mead antropologo estatubuarri galdu ziotenean ea beretzat zein izan zen animalia izatetik pertsona izatera pasa ginen lehen urratsa, zibilizazioaren sorrera zein izan zen, erantzun zuen beretzat topatu dugun soldatu edo sendatutako lehen giza hezurra izan zela. Zergatik? Naturan apurtutako hezurrak ez direlako soldatzen, animalia horiek ezin dute biziraun, eta gosez edo harrapakari batek harrapatuta hitzen dira. Pertsona bilakatu ginean ordea, beste pertsona batzuek zaindu zuten hezurra apurtu zitzaion hori, jaten eman zioten, babestu zuten, eta hezurra soldatu eta sendatzea lortu zuten.


Gure humanitatea ZAINTZAK ematen digu, eta dena pikutara doala dirudien honetan, zaintza izan behar da gure iparra. Ordiziarrak zaintzea, gure herria zaintzea, eta oinordekotzan jaso dugun

El Ayuntamiento es de todas las ordiziarras y todos los ordiziarras y asimismo el alcalde también lo es de todas las personas que viven en Ordizia, por lo que siempre tendrás las puertas abiertas para lo que necesitéis.

Dejadme dar la bienvenida a las personas que se estrenan como concejales en esta nueva legislatura y recordar a las que se van. Hoy, y en esta sala, especialmente recordando a Bittor Bolinaga, y también quisiera dar las gracias a Jesús Mari Lariz, quien desde un lado, o desde otro, siempre ha estado trabajando por y para Ordizia ahora que se va a jubilar de verdad. Y hablando de jubilación, tras largos años de actividad, también le deseo a Iñaki Dubreuil que disfrute del descanso.

Por suerte me tomé unos días de descanso hace poco y los utilicé para leer. Como si fuera una señal, cuando estaba acabando de leer un libro apareció la misma cita al inicio del que comenzaba a leer. Cuando le preguntaron a la antropóloga estadounidense Margaret Mead cuál fue para ella el primer paso por el que creía que pasamos de ser animales a convertirnos en personas, es decir, cuál fue el nacimiento de la civilización. Respondió que para ella fue el primer hueso humano soldado o curado que encontramos. ¿Por qué? Porque los huesos rotos en la naturaleza no se sueldan, esos animales no pueden sobrevivir, y se mueren de hambre o atrapados por otro animal. Al convertirnos en humanos, otras personas cuidaron de quien se había roto el hueso, le dieron de comer, lo protegieron y consiguieron soldar y curar ese hueso.

Nuestra humanidad nos la da el CUIDADO, y ahora que parece que todo se va a pique, el cuidado, debe ser nuestra brújula. Cuidar a las y los ordiziarras, cuidar a nuestro pueblo, y cuidar la naturaleza y el medio



natura eta ingurumena zaintza, belaunaldi berriei aukera bat eskaintzeko.

Horretarako, hemen gaudenok ere elkar zaindu behar dugu, aurrean ditugun erronak itzelak direlako eta adostasunetik bakarrik aurre egin ahal izango diegulako.

Gaur herritarrek jarritako konfianza islatzen du zume uztai honek. Ez da gure asmakizun bat, gure arbasoetatik datorren ohitura baizik. Zumea malgua delako, baina hausteko zaila, baina biribilkatua dagoelako, inor bazterrean uzteko ertzik gabe.

Boterea izan daitekeelako bertikala, edo biribila, aurrera mugitzen dena, feminista, euskalduna, anitza, errepublikazalea eta independentista.

Eta uztaiak erakusten duen bezala, zikloa ixten denean, eskuz aldatuko dena, agintea herriarena delako.

Bukatzeko, utzidazue presoak eta euren senideak gogora ekartzen, bidelagun izan ditudan eta izango ditudan guztiak eskertzen, erortzen naizen bakoitzean altxatzen nauten taldekideei eta etxekoei maite ditudala adierazten, eta gaurko egunean bereziki faltan botatzen ditugun Julian, Norber, Belen eta beste hainbeste oroitzen.

Lau urte hauetan maite ditugun asko joan zaizkigu, eta beraiekin oroitzen garen bakoitzean gure bihotzeko taupadak bizkortzen dira, gogoraraziz gure bihotzeten bizitzen jarraitzen dutela.

Izan zirelako gara, garelako izango dira.

ambiente que hemos recibido de prestado, para ofrecer una oportunidad a las nuevas generaciones.

Para conseguirlo, las y los que estamos aquí también tenemos que cuidarnos entre nosotros, porque los retos que tenemos por delante son tan enormes, que sólo podremos afrontarlos desde el consenso.

Este aro de mimbre refleja la confianza depositada hoy por la ciudadanía. No es un invento nuestro, sino una costumbre que viene de quienes nos precedieron. Porque el mimbre es flexible, pero difícil de romper, porque está enrollado, sin aristas que dejen a nadie al margen.


Porque el poder puede ser vertical, o redondo, que se impulse hacia adelante, feminista, euskaldun, plural, republicano e independentista.

Y como demuestra el aro, cuando se cierre el ciclo, cambiará de manos porque el poder reside en el pueblo.

Para terminar, permitidme recordar a las y los presos y sus familiares, y a todas las personas que me han acompañado en este viaje, a las que me han levantado cada vez que me he caído. A todas ellas le quisiera manifestar mi gratitud, y a mis compañeras y compañeros de equipo y a mi familia, decirles que los quiero, y que el día de hoy me acuerdo especialmente de las personas que echamos tanto de menos, Julián, Norber, Belén y otras tantas.

En estos cuatro años se nos han ido muchas personas que queríamos y cada vez que nos acordamos de ellas se aceleran los latidos de nuestro corazón, recordándonos que siguen habitando en nuestros corazones.

Somos porque fueron, serán porque somos.



Ordiziako Udala

2023IOSB0009

Mila esker guztioi!

| *¡Gracias a todos!*



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la secretaria